

**E**uskal literatur sistemaren berezitasunez hausnartzeko aukera izan dut egunotan. Aurretik, beste nonbait, esana nuen gurea bezalako sistema txiki eta ezegonkorrean ez dela hain arraroa liburu gutxiko egileen fenomeno, lehenengo-arekin lor dezakezulako euskal literatur sistemak eskaintzen ahal duen arreta kuota handia.



**JIRA**  
Angel Erro

Argitaratzen jarraitzea, berriz, etsipenerako bidea izaten da. Fuerte hasitako idazle asko ilundu bezala egiten dira, literatur karreran aurrera (edo sakonera) egin ahala.

Hor utzia nuen hausnarketa. Korolario moduko bat atera diot. Idazlearen egusentiaz interesatuta dagoen modu berean, hasi naiz nabaritzen, adinez, beren obraren amaieran dauden idazle jendea, zahartzarora iritsitakoari, itzala itzultzen zaio, plazara berriz ekarrita, aitortza eginez, ibilbidearen ilunabarrean. Ez dugu traiektoria berez baloratzen, eustea baizik, irautea. Irudipena dut, behin hilda, ez zaigula asko kostatzen haiek ahaztea, omen duta joan zireneko gogo lasaitasunarekin. Euskal literaturak etorkizuna duela (idazle hasiberriak) eta sendotasuna ere bai (idazle patriarkak) geure buruari sinetsarazi eta munduari erakutsi nahiko bage-nio bezala.

Latinak hitz bera darabil egusentirako eta ilunabarrerako.

## Espazioa

**D**ardoak botatzeko aukera eman digute. Etzanda geunden lekutik esnatu eta jolgorioaren parte izan nahi izan dute askok. Besterik ez bada ikusle, baina protagonista guztiak gizonak izango direla dirudi. Jende asko gaude inguruan, begira edo ez. Batzuk tabernan, beste batzuk irakurtzen, umeak jolasean. Esango nuke gaiza asko ari direla gertatzen, baina badirudi bakarria dela garrantzitsua: kamisetarik gabeko gizon mordo bat, jo eta ke, diena baten erdia zulatu nahian. Eta erdi hori da guztiaren erdia. Nahi ez duenak ere entzun egin



**BIRA**  
Onintza Enbeita

behar ditu haien apustuak, maldizioak eta txaloak. Neska gazte gutxi gorabehera polit bat pasatzen den aldiro, agurtu egiten dute. Dardoen anaidia osatu dute munduko oso punta ezberdinetatik etorritakoek. Ahizpadia beste kontu bat izango da. Ahizpadia dantzan genbiltzan atzo gauean, baina ezin izan genituen anaidiko zenbait kide gainetik kendu.

Eta horrela gertatzen da munduko txoko honetan ere: espazioa okupatzen dutenak beti berberak dira. Gizonena da espazioa ia denbora guztian: batzuetan ez diotelako inori uzten haien tartera sartzen, eta beste batzuetan, haie-na ez den espazioan sartzen direlako.

Egingo dugu behingoz espazioaren banaketa justuago bat, ala interesatzen ez zaizkigun dar-do partidak jasaten jarraituko dugu?

**Igor Calzada**  
Oxfordeko Unibertsitateko akademikoa

**O**hikoa izaten da Irlandaren eta Euskal Herriaren parekotasunak azpimarratu, edota kontrara, ezberdintasunak zorrotzen dituzten analistak proportzio berean aurkitzea.

Berriki gauzatu diren hauteskunde orokorren emaitzek iraganaren, orainaren eta geroaldiaren sintesi berri (eta ezjakin) baten auzuan jarri gaituzte: Sinn Fein alderdi errepublikazale eta ezkertiarak hauteskundeak irabazi ditu. Beraz, hegoaldean, Irlandako Errepublikan, gobernu-eratzeko prozesuan egon liteke lehenengo aldiz. Hala ere, Sinn Fein alderdia lehenagotik ere Ipar Irlandako Stormont parlamentuan alderdi unionistekin gobernu partekatzen ibili izan da urteetan zehar. Emaitzak, hamarkadetan zehar, Fine Gael eta Fianna Fail alderdi liberal-kontserbadore-zentristen tandemaren bi gurpilak erabat zulatatu zituzte, partida politikoa, Irlandako Errepublikan, hegoaldean, aldatzeko tenorean jarritz.

Gogoan dut Dublin hirian gora eta behera, sarritan, 2005-2008. urteetan zehar, eragileak ikerketetarako elkarriketatuz, implizituki jasotzen nuen sententzia eta ebidentzia: Ipar Irlanda emozionalki oso urruti zegoen hegoaldeko biztanleengandik. Nabadurak nabardura, hamarkadetako *troubles* garaiko indarkeria politikoak, bereziki 1970az geroztik, Ipar Belfasteko Shankill eta Falls auzuneak lubakitu zituen erabat. Kontrara, hegoaldean, 2008ko krisi aurreko tigre zeltaren loraldi ekonomikoa gauzatzen ari zen, egungo Google eta Facebook erraldoi teknologikoak Dublineko Docklands-en geoestrategikoki kokatzen ari ziren bitartean: *goiko* arrea eta anaien erreallitate gordina geroz eta arrotzagoa egiten zitzaien. Irlandako irla berdea, antzinako bihotz irlandar hauskorra: kra (kra, kra), hegoaldeetik eta iparraldetik erdibiturik egon izan da hamarkadatan zehar. 1998. urtean inflexio puntu bat gertatu zen arte.

1998. urtean inflexio puntu bat gertatu zen arte Iparraldean: *Good Friday Agreement* edo zorieko mugarrirako estrategiko izan zen bake prozesua sinatu zen. Harrezkero, besteak beste, asko izan dira, bereziki Ipar Belfast-

eko auzuneetan, berrikuntza sozialaren bidez, komunitate barmatzaileak erdiesteko aktibitateak diren behetik gorako egitasmoak (*174 Trust*).

Hegoalderi dagokionez, halaber, hauteskundeetako emaitzak ezustean harrapatu bagaituzte ere, badira elementu batzuk azpimarra bereziki mezezi dutenak Sinn Fein alderdiaren barne-bilakaerari dagokionez: (i) Batetik, Mary Lou MacDonaldeen lidergo feministaren soslaiak bete-betean asmatu du hegoaldearen gehiengo handi baten kezka sozioekonomikoekin. Gerry Adamsen garairekiko aldaera garbi baten moduan ikusia izan da. Mary Lou dublindar peto-petoa izaki, garai ilunekiko halako haustura baten isla izan da, boto-emale gazteen artean batik bat baloratua. Modu argigarrian, batasunaren erreferendumean oinarritu beharrean kanpaina, gizarte eta ekonomia politika aurrerakoiek bereganatu ditu ez soilik langilego eta klase ertainak, baizik eta bereziki emakumeak. Bestetik, bere inguruan lantalde gaitua antolatu izana ezin ahanzi: Eoin Ó Broin izan da azken urteotan, etxebizitza, errenta eta osasun politiken diagnosi errealista eta beharrezkoa Dublinen egikaritu duen politikaria, hamarkadetan zehar metatzen ari ziren krisi urbano behine-nak azaleratuz eta alternatiba eraikitzaileak aurrera eramanez.

Perspektiba makro batetik, halaber, elkarri lotuak dauden lau faktore azpimarratuak nituzke hurrenkeran, egoera korapilatsu honi jarraipena egiteko: (i) Ipar Irlandako egoera osoa goitiki behera aldatu izana bake prozesuaren ondorioz; (ii) *Brexit*-ak Erresu-

ma Batu osoan sortu duen domino-efektua. Ipar Irlandan bereziki, baina Hego Irlandan ere islatu dena hauteskunde hauen bidez. Gogora ekarri dezagun Ipar Irlandarren %56ek EBn gertatzeko hautua egin zuela; (iii) Hegoaldeko pertzepzio aldaketa iparraldearekiko, eta hor, estereotipoak eraldatuz, Mary Louren ekarpenak berebiziko garrantzia izan duela uste dut; eta azkenik, (iv) hegoaldearen eta iparraldearen etorkizun partekatutabetarako zantzu edo seinale posible batzuen existentzia.

Hala ere, ohikoa izaten den moduan, ikusteko dago oraindik *sistemak* (Fine Gael eta Fianna Fail tan-demaz ari naiz, baina baita Boris Johnsonen *post-brexit*-az eta Trump administratziotik datozen eragin geopolitiko globalez ere) amore emango ote dion erreleboari, Sinn Feinen gobernu eraketa ahalbidetuz. Gauza asko daude jokoan konplexua den taularatze geopolitiko global honetan.

Hala ere, inork uka ezin lezakeena da iparraldea eta hegoaldea emozionalki eta lurralde perspektibatik askoz ere gertuago daudela, eta horrek derrigorrean txertatzen duen batasunaren balizko erreferendum baterako aukera agenda politikoan. Batzuetan gutxienez espero dugun lekutatetik irekitzen dira zirrikitu-akurak. Bitartean etzeko lanak eginda edukitzea ere ezinbestekoa izaten da.

Eta hemendik aurrera zer? Ikusi behar harko. Baina ikusiko al ditugu inoiz 1922tik aurrera banatu ziren iparraldeko 6 probintziak hegoaldeko 26ekin batera aterki berdinpean? Adituek hiru eszenario aurreikusten dituzte: (i) Estatu bakan bat Dublinetik gobernatua (betiko aldarri klasikoa); (ii) egungo Stormont deszentralizatu-tako parlamentua, baina Dublinetik gobernatua (Londresen ordez); edo (iii) bi estatuen arteko konfederazio moduko bat. *Good Friday Agreement*-ean iparralderako aurreikusten ziren aukera hauek, dudarik gabe Errepublikarako, konstituzioaren erreforma sakon bat ekarriko lukenean. Baina galdera praktikoa egin behar bukaeran ere: zeinek finantzatu ahal izango luke birbatasun hau? Erreferendumaz gain, zenbakiak tentuz aztertuz behar harko liriteko, munduko beste hainbat lekutan historian zehar gertatu denari so.

Euskaldunok Irlandarekiko parekotasunak begi-bistan izan ditugu maiz. Horrexegatik, aspalditik daromat Irlanda irla batu bat nire bihotzean tatuaturik. *Sláinte!*

**Inork uka ezin lezakeena da iparraldea eta hegoaldea emozionalki eta lurralde perspektibatik askoz ere gertuago daudela, eta horrek derrigorrean txertatzen du batasunaren balizko erreferendum baterako aukera agenda politikoan**